

# OLERTI

ZUZENDARI: AITA ONAINDIA—LARREA (ZORNOTZA)  
BANATZAILLE: X. P. ALBIZU—BILBAO

Urtarrilla-Bagilla 1969 (I-II)

## OLERKARIA ETA OLERKIA

Munduko kondaira begi aurrean ipiñi ezkero, beti daukaguz bere orrialdeetan zalapartak, iskanbillak eta abarrotsak. Ez gizarteko auzietan bakanrik, eder-gaietan be bai. Estetika ta literaturari dagokiozala, antxiña-antxiñatik ezagutu dira joera ezbardiñak, eritxi, asmo, gogai ta gaiñerako ezbardintasunak, edo ezbardinkeria. Euskeraz ederto esan oi dogu: «Zenbat buru, ainbat aburu». Beraz, gai askori buruzko zalapartok ez bekiguz izan arriagarri.

Olerki-zelaian be, gaur, ainbat eritxi ezagutzen doguz. Len eta orain. Gure literaturan, eta olerki-saillean berariz, ba-ziran orain berrogei urte, aurrera jo naita nimbait, gizon argi, trebe ta erreboluziño zaleak: Lizardi, Orixé, Lauaxeta ta euron

garaikoak, esate baterako; beste batzuk etorri yankuz geroago, oraindik ausartagoak noski. Ta orrelaxe izan bear. Len tradiziño bat zan euskal olerkian, bai mugaz andikoak bai emendikoak naikoa zintzo zaindua. Ona tradiziño ortako iru bidearri: Etxepare, Elizanburu, Arrese-Beitia.

Eder-matxinadok, araudiz ta legez aurreratu guztiak doazanean, ez dira txarrak. Baiña entzun eder-zalapartetan buru izan zan Unamuno'ri: «Egiaz bestera doazanean, ez ditue euren asmo ta agin-duak beteren». Bai, kontrako agertzea errez da: argiak ez dauskula nai beste argi emoten? Itzali. Barria ixiotzeko oriorik? Dana dala, lengoa eraixi, ta kitu. Ez dakigu zeren aurrelari edo bide-erakusle ditugun. Unamuno'k au dirautse onakoak: «Eskabide barri orreitan, gaiñera, ia beti asmaketi uts diranean, poetika (olerkera) baiño retorika (ele-era) geiago egon oi da. Ta, dakigunez, erretorika dogu pentsamentuak eta sentimenduak, bateren bat baldin bada, jantzi ta estaltzeko; poetika, ostera, pentsamentu ta sentimendu orreik billoistuteko».

Olerkaria —goiargiz biztu-indarturiko gizaki berezia— beti agertu izan da errien aurrean noizean beingo, bakan arrigarri legez; baiña ezta bizi erritik kanpo, gogoz beintzat erriari ondo korapillotua baiño. Sorterrikoen arnas bizi sakona lez da, arein ames, bizi-nai, biotz-ikara ta asmoak zirt eta zart, oso ausarditsu, lau aizetara iragarriaz. Asmamenez, goi-argiz ta maitasunez jantzia da; baiña bere olerkilana ezta iru gai orrein jokua bakarrik; izan daitake, ta izan bear dau, bere erriaren barru lokartua esnatu ta indartzeko mezu bat, mandatu bat, erreparri bat daroana be.

Lenago artan, gerkar eta erromatarren artean batez be, erria gaur baiño erlejiñoari emonagoa zala, Jainkozko zerbaitzat joten eben olerkaria, ta, goi-argiz joa zebillenean, beronen bidez adierazten zan Jainkoen abotsa. Olerkariak —Platon'ek bere *Ion* al-karizketan diñoskunez— goitiko argi ta indar ba-

kan batek zuzenduta idatzi oi dau bere bertsozko lan. Olerkia, beraz, ezta arentzat jakite ta teknika-ik zu do, errazoi bidez datorrena; aren adierazik, Jainkozko jarraituaz, errazoi bako indar datorrena dogu, indar onek bai dautso gizakiari oso-osoan orduen eta onik onenean, uneka, naikun izkutu artiztiz baten tresna biurtzen.

Goi-indar bakan ori Maitagarriak (musak) emona da, ta gizakia Jainkozko dago, barruan sartu ya-ku, Jainko adores aldean daroa-ta. Gero, olerkaria Jainkozkozunaren adierazle dan lez, era berean olerkizunaren adierazle egin, era eragin bardinaren mende, Jainkoaren adierazle egiñik, aren eragin bizia en-oldegienganañio eldu-azteko gai zala. Jainkoaren eta Jainkozkozunaren artean, olerki-kate antzekos antolatzen da orrelio, erdiko kate-oboak olerkaria ta rapsoda dinlarik. Onela edo: iman arriak lenengo burdinak erakarri oi dau, ta aldi berean, berak daukan erakarpen-ala ezarten dautso.

Platon'en errazoiketa onek ba-dau zer-ikusia gutte mistikuakaz. Santuak olerkari, poeta, dirala esan oi dogu; olerkari audi ta guren. Jainko-iturrian edandako jarion gozoa liburueta aldatu oi dabe. Gurutzeko Joan eta Teresa deuna, or mistiku bi, olerkari eder. Joan deunaren olerki munduko izkuntza guztieta itzulia, Jainkozko da osorik, fedez ezagutu, itxaropenez bizi ta maite-suaz ikutzen eban. Jainko Jaunak eraginda sortua ta liburueta txinpar-jarioka itxia. Ta etenbako artu-emona Jainkoaz euki eban Teresa deunak, naiz itzaskatuz idatzi naiz neuruetan, goi-iturriatik artua damosku beti. Poesia loratan dagon arima baten usaiña ba'da, Teresa deuna olerkari bikain dogu. «Mistika —diño Unamuno'k— batez be ta oroz gaiñetik, olerkia da. Baiña ez asmaketa utsa danean, Jainko-arnasaren emotea danean baiño. Gure mistiku guztiak olerkari, ta olerkari gorenengoak, izan ziran».

Olerkaria beti yaku eder. Bere barru-kemena da mosku, bere zentzun ezkutua, izamenaren barru ixilletik jagitako adierazpen gaiñez-gaiñetikoa, metapisikua. Bere barne-lan biziakaz, munduan eta bizitzaren gaiñezko egazkadaz, munduan eta berto-ko gauzetan beeregi sarturik dabilzan gizasemeaj aparteko mandatua dakartse. Eurotan batzuk andi dira, beste batzuk ez ainbeste; andiak, noizik bein agertu oi yakuz kondairan zear, eguzki ditzirakor antzera; ta txikiak, garrantzi asko bagako lanen jabe diranak, geiago izan arren, euren arlo berezia izan dabe len eta orain, eurentxoa biotz-zabalk gizarteari eskeiñiaz. Bai andi bai txiki, mundua obetu nairik oneik egiñiko lana beti izan da ontzat artua. «Poeta —diño Unamuno'k—, poeta da, bere izkera ritmikuaz, bere arima billoistuten daina. Ritmuak, gaiñera, larriñean aize-urkuluak lez bere oldozkuna, pensamentua garbitzeko balio dantso, zero eguzkitsuko aizetan agotza ta garaua banatzeko».

Ona E. Markina olerkari andiaren eritxia be. «Olerkaria da —diño—, enparauak be susmau bai, baiña zelan esan ez dakiena gogotan erabilliz ausnartu ta besteai orixe berori adierazten saiatzen dan gizakia. Barne-joera esan eziñak —zauskada ta burutapenak— sortzen diran arimaren barruti ezkutu ortan zirkin dagi olerkariak. Olerkaria baita igitzen da beste barruti ortan, ezkutua bera be, burutapenari gorputza emon eta, orrela esateko, berau indartzen dauan itza sortu oi dan lekuau. Lenengo une edo momentuan —goi argitze unean— pizkat beintzat aztru, «koblari, da olerkaria; igarle be deitu yako. Bigarren momentuan —adieratze unean—, olerkaria, bere senez ta oldez, erriaren antzera nimbait, asmatzaille, izkeraren maixu da».

Olerkaria, alan eta guzti be, ezta burutapena ta itza bakarrik. Ez. Bera mugatu ta berezi daroana eztira gai biok bakarrik, ezta berak irakatsi edo idazteko erea be: beste aurreragoko zerbait beat

dau, ta zer ori barne-zirrarazko zerbait dozu, gaitasun aparta oso, izatearen azpi-azpitik sorturikoa. Ta bazter edo azpi ixilkoi ortatik ernetako zerrek, izate naiz biotz-laban galgatu orrek, barne-orrek, gogai beko naiz ausnar uts orrek, burura igo eta gogai (ideia) egin eta mamiñez jantzirik, agertzen yaku. Ta gero gogai au, pentsamentu au itz biurtzen yaku, ta azkenez itzez, berbaz, adirazoten dogu, iragarten dogu, geure gun barruko beroz ta buruko adorez osoturiko itzaren bitartez, geure-geure dan zerbait.

Eta zer orren eratzetik, aurrerapide ta prozesotik datorrena —intziri, zauskada, zirkin, itz, nai dozun lez deitu—, beti da geure izate-barruko zati bat. Iturritik ura lez barrutik jarioa, biotzak eta adimenak oretua, ideia ta oldozkun ederreza apaindua. Ta gaiñ ontara ezkero, ona beste zeaztasun bat: barnetiko ori, oldozkunez mamindu ori, itzez jantzi ori, geure seme ori, eztogu nai izaten era baldarran argitara eldu daitenik. Zer egin, beraz? Itzak ez beitez baldarrak izan, dotoreak, biziak, giarrak baiño. Ots, munduari ta biziari buruzko geure sentipenak ez doguz era lautan adierazo gura. Ortarako beste zer bati oratzen dautsagu: mituari; au da, antz-irudipean, erdi-illunetan lez, agertu oi dogu, agertzekotan be, geure barren misterioaren alderdi kaskar bat.

Ona zelan: begien txairotasuna esateko, «lorearen ederra dauko dizdizka», esan oi dogu manguna bat egiñik. Eta au gizadia bere eder-arloan ume zalarik ezeze, gero be olerkaria beti izan da ume irudipen, zotin eta ikuspegi dotoreetan; au da, gauzen izatetik eta jakintzaren aurrerapenetatik igeska lez dabilkiguna. Izarrak eguzkitik lez? Dana dala, gaur be, olerkariak, gizona lurtar gauzetan geiegi sartuta ikusirik, bere mitu barrien bitartez, bere antz-agiri edo sinbolismuen bitartez, ark, gaurko gizon urduriak, gai arazoetan murgilduegi

bizi danak ikusten ez ditun alderdi asko, gauza ezkutu asko ta asko, dirdirka jarri daroaz.

Olerkiaren izana, mamiña, zer dan jakitea ez yaku errez. Olerkariaren izatetiko zerbait da. Ta bakotxak, olerkari bakotxak ditu bere zerak. Ortik ditugu ondorioz pentsakera ta idazkera ez-bardianak, diferenteak. Baiña barne-arnas ori, mamindu ori, bein neuritzlariaren izatetik kanpora urten ezerkoz, geienez zelan agertzen dan, eta zelan agertu bear dauan, ori bai jakin geinke. Olerkiak, osagai bi ditu: irudi adiera (metafora) ta igiera (ritmua). Eder-agerkarietan sustraiko bereizgarri bi ditugu oneik.

Poesi-izkeran gizadiaren asi-asieratik erabilli izan da, ta era berezi lez, antz eta irudiz geure geure barrua adierazteko era apartekoa. Zer da berau? Ona: «itzen esangura edo zentzun zuzena, alderakizun ixil batean ankalatraba beste iruditu batera aldatzea». Nundik sortutakoa ete dogu gauzak azaltzeko era au? Antxiñakoak uste ebenez eta gaur be ba-dira onako eritxidunak, debekatuta dago gauza asko edozelan esatea, ta ari edo oni kalte egin geinleo izentatuaz bakarrik. Baiña sarritan zer orri dagokiona naitaez aitatu bearrean aurkitzen garealako, ez doguz gauza orreik artez-artez izentzen, inguruka ta zear-mearka baizen. Eta au gauzeak gogora dakarskun antz-irudi ta bardintza baten bitartez dagigu.

Antxiñako errialde askotan, adibidez, etzan zillegi ez bidezko erregeari bere izenez deitzea. Israeldarrak be ez eutsoen Jainkoari bere izenez deitzen, «betiko», «indartsu», «santu», «onbera» ta olakoakaz baiño. Euskaldunok orobat, zeiarka lez lenago *urtzi* ta gaur *goiko jauna* deitzen dautsagu. Lenengokoen izkera berez-berez olerkitsua da, ez atseginezko zerbatetik sortua, izateak berak eraginda jaioa baiño. Olerki-izketea, beraz, antz-irudiz jantzia, itz-lauzkoak baiño zatia aurretikoagoa dozu. Era samur giartsuan egiñak dagoz gure aspaldi bateko esaera,

otsoditz eta kanta zarrak. Olerkiak, ots, asmamen sortzaileak egin daroa izkuntza. Ortik euskaldunen len-izkera bertso-izkera zala indartsu esan gengike. Poesi-metaforak, ba, ba-dakigu zer esan nai dauen: iraulpen eta tokiz aldatze bat, itzen esan-guraren asmoan. Gauzeak dauan antzean dau oïna-ri; au da, irudi dauan gauza bat, antza dauan beste baten izenez aitatzea. «Uren leiarra» esan oi dogu, adibidez; «urteen pixua», «maitasun-egarria», «gizon au leoi ton sumindua», «itxaso asarratua»; «gizon au leoi bat da», «goizeko iruntz-pitxiak», «barruan ozka bat da». Itzul-inguruka diñoguzan zer darabilgun arra. Itzul-inguruka diñoguzan zer guziok, metaforak dira. Ta «gizon au leoi bat da» esatean, auxe esan gura da: gizon au sutsua ta indartsua dala. Taiu onetan egiazko gauza bat, as-mamenaren indarrez, burutapen biurtzen dogu.

Amets bat legez da olerkia. Itz-joku lilluragarria. Egiazko mundua antz-aldatu ta irudizko bat sortu ta eratu oi da. Poesia baten, bada, irudiaren indatzak eroan oi gaitu, gauzak importantzi ta gora geiagoz jantzi ta eder-baliotsuago egiñik. Ortaz mintzatzen yaku Ortega y Gasset. «Olerkia —diño— itz-joku zoragarri da; gure gogoak, gauza baten, erabiliaren erabilliaz erdi-galduta eukon alderdiaz topoz egin ez dagigun, ustekabeko itzulinguru egiñik, betiko gauza orrek dauan iñoi ikusi bako bizkar-aldea begien aurrean ipinten dausku. Gauza txautu ta lizundu ori, izentatze barriak, sorginkiro bir-sortu ta lengoratu oi dau». Olerkiak, izan be, bere idurikizunez gauzeari izenbarria ipiñi ez-ezik, gauza orren guna, mamina, izana bera be azaldu egin daroa. Ta olerki-mundu orrek, ainbat gauza, guk sarri ikusi ta ikutzen genduzanak, barriro sortuta, jantzi zoragarriz dizditsu, lillurapenik tinkoenean jarten dauskuz. Gauzen mundu barri bat, guk ez genkiana, bizi, indartsu, dardaraz daukagu aurrean; ots, mundu au ta bertoko gauzak, irudi-menezko mundu egiñik daukaguz.

Mundu ori jasotean, olerkari batzuetatik besteteara ta garai batetik bestera, alde andia ezagunizan da. Alan eta guzti mundu au edertu ta jainko-adorez biskortu nairik lan dagienak, beti ditugu txalogarri. Egia dozu: Aldi'ren gurpil-unetan gizasemeon aoxuri ta gustua be aldatu oi yatzu. Gaur, adibidez, Errusia'n olerkari andi dogun Evtuchen-darabiltz bere poesi-esaldi ta liburueta. Baiña zelako jantzi ta suaz, gero! Gauza xumez osoturiko mundu zorakor bat dagersku. Ta, or olerkia! Or olerkaria!

Guk gaur doguzan euskal olerkarietara begiak biurturik, zer esango ete? Izan ditugu ta ba-ditugu gaur be olerkari bikaiñak, geure lurra, geure goraberak gizonki abestu dabezanak eta abesten diarduenak. Eta ona oneitariko batek lengoan zer esan eustan: «Ni zure eritziz, A. Onaindia, olerkari audi ala txiki nozu?» Poesi-liburu batzuk argitara emonik daukazana da berau. Ta nik, begietan irmantzo, erantzun neutsan: «Ori, adiskide, zertarako jakin nai dozu? Niretzat, olerkaritzan, Jainko txikiak eta andiak ditugu. Itz-neurtutan, niretzat, oberrik lagi arte, gizaldi onen barruan Lizardi, Orixo, Lauaxeta... dira Jainko nagusi. Atzetik leiaka datozan gazteoi be, esanak esan, kostako yake arein parera eltzea.

Irakurri, bai, Lizardi'ren *Biotz-begietan*, Lauaxeta'ren *Arrats-beran* eta Orixo'ren olerki-lan jakin-garriak. Arein mamiña ta arein azala! Or egiazko olerkia, olerki iraunkorra! Mundu ontako gauza kaskarrez beste mundu zoragarri bat eratu dauskue. Baiña, naiz Jainko andi naiz txiki, olerkaria beti Jainko, aztru, asmatzaille jator. Eta Jainko dan bittarte, bebil ortila, azkar ta gogotsu, erriaren zuzendari, zeruko Jaungoikoaren adierazle. Goiko naiz beeko, bitzuen lanak eder ta aintzagari.

Gar ta jantzi da olerkia. Barnea gar, jantzi azala. Zoragarri izateko, biak bear. Baita guzti ori oretu,

stragitu ta eun-miesa baten barruko bilbe antzera, dana bateraturik, graziz ta edertasunez jazten dauen beste zerbait be. Zer dozu ori? Igiera; erderaz esan, nimua. Asieran olerkia musika zan: bertsoak kan-tauak ziran. Grezia'n rapsodak egozan ortarako. Gu gerkarrak baiño geiago gintzazan, eta gara. Gure bertsolariak asma ta kanta, batera egiten dabe. Bai ederto! Geroago, literatura guztietan, poesi ta musika, aizta bi oneik, banandu egin zirala autortu bear. Baiña ez oso-osorik; olerkiak ba-dau oindiño be doiñudun zerbait: igiera edo ritmua.

Eta zer dogu ritmu au? «Ritmoa —diño Lekuona'k— itz-errenkadak barru-barruan daraman zer bat da, misteriozko zer bat; zer orrek itz-errenkada, anal txikitán —ots, oñetan— zatitzera bultzatzen bait-gaitu. Obeto esateko, itz-errenkadaren zer ori, itzeten baño areago gugan dagon sen orrek bultzatzen gaitu itz-errenkadaren zatiketa egitera». Erdel literatura askotan silabaz neurten dabez bertsoak; gerkarrak eta latitarrak, ostera, oñez. Gu neurketa ortan erderaz lez silabaka asi ta ibilliak gara Iuzaro, baiña geure bertso-errota olerkiak, latiñak eta griegoak lez oinka neuruko ba'genduz, ez litzakez areik ain aspergarri ta lo-erazle izango. Orixo'k orrela jokatu eban, azken aldian batez be. Ta Lekuona'k amaitzen dau: «Orregatik dira Orixo'ren olerkiak ain musika-izaeradunak, musika-antzekoak, musicalak. Ez ordea musikaren gañean egiñak diralako, musikak eta bertsoak, biok berdin-berdin, ritmoari jarraitzen diotelako baizik».

Gizaki jakin-zaleak gauzen ondarreraiño jatsi nai izaten dau. Ta guk be alan dagigu: ritmu orren izate ta jatorria nun ete dagon itandu. Ez dakigu ziur-ziur, baiña au diñoenak eztira gitxi: ots, bezko gertakari batzuetatik datorrena dala. Ta, ain zuzen, begiak edeki ta ikusi igiera, ritmu zoragarria guk inguruau daukagun munduko gauza guztietan, izarretan, lurrean, itxasoan. Begira lurrean urte-

barruko aroak, negua, udabarria, uda, udazkena; begira giza-bizia, gure biotza, gure birikiak, gorputz-iñarkun guztiak. Igiera, beraz jazoera zabal bat dogu.

Poesia, azkenez, biotz-zirrada da, dantza gorputz irrada dan lez. Dantzeak igiera berezia eskatzen dau, olerkiak be bai. Ez bakarrik barnean sentikeran, baita esakeran be: poesia esaten dogunean, arnas-aldi antzera, dana era bardinorean barik, neurri ez-bardinetan, saltoka lez, orain zaldiaren *trakata*, *trakata* lez, gero astoaren *txaka*, *txaka* lez neurria eroan oi dogu. Izkera neurtua ei dogu gure biotz-ikutuaren berezko adierazpena. Ta, du darik bage, biotz zauskada ta ritmuaren artean zer-ikusia izan bear dau naitaez; ritmuak berak, musikatik dakusgunez, biotz-birlora ta zarrasta indartsua ezarri oi dauskuz.

A. Onaindia